


# BAKOITZARI BERIA

*Gogozko aldapak  
Nekerik ezi  
Nai degun gauza  
eften erez.*

## LOTAZILLA

**1919-31**

Tip. Rogelio Fernández. — Irún



## IRAKURLE

Ludia, gizadia, sekula egon dan baño nastuago dago: baña, egi-egitan, orain da gauza: zuzen egiteko garaya. Orretarako gure are tanta ipintzera guaz. Bakoitzak berdin egin dezala eta gaizkatu edo salbatuko degu Euzkadi guria, nai ta ez datorren eraso gogorretik.

Baña lenago bastertu biar degu gure gerekoitasun edo egoismua bestela alperrik izango dira alegin guziak. Etorriko da alkar-burruketa, odolez beteko dira karririk, ondatua izango da aberastasuna eta odol ta auts tartetik agertuko da Zuzenpide edo justiziako eguzki garbi-garbia..... ¡Egin deitzagun. alegiñak Zuzenpide eguzki ori odol ta auts tartetik agertu ez dedin Euzkadi gurian! Agertu dedila, bai. baño agertu dedila lantegi tximinitako keiak urratuz eta gure giza-legiak lagunduta: lan eta pakiak ekarri dezatela ez gerekoitasun eta gorrotuak. Baserritarrentzat idaz tera nijua zegatik lantegitako langille geyenak alkartuak daude alde batian edo bestian eta nork arpegiya atera bai daukate. Bakarririk daude astuta besela, bastertuta, ixil-ixilik, biar biarrenak: baserritar eta arrantzalia. Gaur baserritarren aldiya da. Noiz bait idatziko degu arrantzialientzat.

J. M.





## ASIERA

I

**Nola eta zegatik baserri eta lurrak baserritarrenak izan biar liraken.**

«Ire bekikiko izardiakin  
Jango dek, gizon, ogiya.»  
Jainkuak esan zion gizonari.  
¡Ta Bera da gure nausiya!

Agindu ori baserritarrak  
Txif zuzen daki gordetzen:  
Baña aberatz biotz gabiak  
Berdin aldu edo egiten?...

¡Ez! Alaz ere laja deiogun besteri nai dun bezela bizitzen eta alegiñak egin deitzagun baserritarra obeto izan dein. Lurrak, lanik egin ezezkero ez du ezer ematen. Eta zubek, baserritarrok, lan egin ezik, baserri eta lurrak beuren jabiarri ez lioteke ezer emango. Ezer ez eukitzia

ainbeste litzake nagusi arentzat. Baña zubek lan egiten dezute ta izardi ugari botiaz, artzen dituzute gari, baba, arto eta gañerako gauzak. ¿Ta zeñek eman dio baliyua lurrari? ¿Nagusiak?

¡Ez!! Zubek, zuben lanakin eman diozute daukan baliyo ori. Orduan legezkua, zer litzake? Ezer egin ezdubenari lurrak eman dubena ematia, edo bere izardiakin lan egiñaz lurrari kendu dionak beretzat gordetzia? Orain arte izan ziteken ezer egin ezdubenari eman biar izatia, bere aita edo aitonak laja ziolako baserri eta lurrak. Baña emendik aurrera ez jegin leike! ori gertatu. Lurrari bere izardiakin lan egiñaz ezer kentzen dionak, beria du lurrrian artzen dubena. ¡Jainkuak ori agindu zuben!

«Ire bekiko izardiakin  
Jango dek, gizon, ogiya»  
Jainkuak esan zion gizonari.  
¡Ta Bera da gure nausiya!

Gañera orain berrogei urte 3 ontzako errenta zeuzkan baserriyak gaur 9 dauzka.

¿Zeñek eman dio baliyua? Baliyo ori eman dio berrogei urtian baserri artan lan egiñaz bizi dan baserritarrak.

Eta gertatzen da nausiyak esan dionari botua ez diolako eman edo beste edozein uzkeringatik, 80 edo 100 urtian lan egiñaz eta errenta zuzen ordainduz bizi dan baserritik bidaltzia. Nausiyak, errenta galanta kenduaz gañera, berari komeni zayon bezela oldoztu edo pentzatzeko agintzen dizute. Eta zubek ixil-ixil esana

egin biar.... ¡Etzerate baserritarrok zuben buruen jabe! Eta au gertatzen da XX'garren gizaldian eta erri aurreratua dala esaten duten baten.... ¡Utikan! Baño au ez da gertatuko geigo zuben bere buruan jabe izan dein egizko lagunak emen gaude. Bai, baserritarrak, zuben lagunak, egizko lagunak, izango gerade euzko abertzaliok edo-zer gauzatarako. Zegatik zuben biziya da gure biziya. Baserriyan dago Aberriak daukan gogo indartsuena, obena. Baña gaizki legoke orain baserri eta lurren jabe diranei ozte ta mozte gabe kentzia. Ez, ori euzkaldunak ezin genezake egin, jez degu egingol zegatik lapurreta bat izango litzaken.

## II

### **Nola bakoitzari beria emanaz gauzak egin leizken zuzen.**

Gaur Gipuzkoan daude 6, 7 edo 8000 baserri, eztakit zenbat, baña bai geyenak kaletarrenak dirala, obeto esana, jauntxo batzubenak. Ba Diputazioak egin biar leuke. ¿Zenbat baserri dira beuren jabiak lan egiten ezdutenak? 7000? Ondo dago. Dietu orain dauzkaten jabiei ta esan. Jaunak: zuben baserriyak nik artzen dizutet. Gaurtik aurrera neriak dira eta beuren baliyua izentau ta ordainduko dizutet modu ontara. Baserri batek ematen dizute urtian 600 peseta errenta: ba, euneko 4' an baliyo ditu baserri orrek 15000 peseta. Ni egitenaiz baserri orren jabe eta nik emango dizutet urtero 600

peseta oyeek. Orain, nola baserri oyeek beuretan bizi diranentzat izango diraden, urtero 20 edo 25 erosiko ditut eta sotz egingo det zeintzuk ordaindu.

Gero baserriako maiztarrei deitu ta esan Jaunak: orain bizi zeraten baserri eta lurrak zubenak dira nai ba'dezute. Gaur ordaintzen dezuten errenta ordainduko dezute: urtian 5, 6 edo 700 peseta.

Orretarako baserri bakoitzari emango diogu bere baliyua. Baliyo ori jarriko diogu orain bi urte zeukan errentatik kontua aterata: jarri deigun 15000 peseta baliyo ditula. Ba, 15000 peseta baliyo ditun baserriyak eukiko ditu, euneko 4<sup>1/2</sup> an. 675 peseta errenta. Ortik gora ezdu sekula izango errentarik eta baserriya izango da bertan bizi eta lan egiten dubenarena. Ez dio inork aginduko.

Orain, urte ona izan dezutela eta, 4 edo 500 peseta aurreratu dituzutela errentaz gañera? Ba eman Diputazioari eta urrengo urtian 500 peseta oyen errenta gutxigo ordainduko dezute.

Amar urtian 5000 peseta eman ba'diozute Diputazioari, errenta izango da 10000 pesetana: 450 peseta urtian. Ogei urtetan 15000 pesetak eman ba'diozute Diputazioari, ez dezute geigo ezer eman biar eta baserri ta lurrak zubentzal izango dirade». Garbiro ikusi dezazuten konparaziyo bat jarri deigun.

«INTXAURPE» baserriyak urtian 600 peseta errentatzen ditu. Bere jabia da don Martin eta Pello maizter edo «Intxaurpen» bizi dana. Dipu-

tazioa egiten da baserri orren jabe eta nola 600 pesetako errenta daukan, euneko 4<sup>o</sup> au dator 15000 peseta baliyo ditula «Intxaurpek.»

Pelloc, don Martin'eri ordaindu biarran errenta, emango dio Diputazioari 675 peseta. (Euneko erdi ori geigo jartzen da Diputazioak euki litezken gastuak berdintzeko)

Urrengo urtian urte ona izan du Pelloc eta 675 peseta eman biarran eman dio Diputazioari 1675 peseta, orida 1000 peseta geigo. Ba, urrengo urtian «Intxaurpek» izango du 14000 pesetan errenta: au da 630 peseta. Nola Pelloc dukien zenbat geigo egin, zenbat geigo ordaindu Diputazioari, errenta txikigua izango dubela, orduan eta alegin aundiguak egiten ditu dirua aurreratzeko.

Bost urte igaro diranerako ordaindu dizka Pelloc Diputazioari 6000 peseta.

Eta jakina «Intxaurpeko» errenta da orduan 9000 pesetana, euneko 4<sup>1/2</sup> an: 405 peseta urtian. Beste 10 urtetan eman dio Diputazioari 9000 pesetak eta ara nola 15 urte barru Pelloc «Intxaurpe» beretzat daukan. Intxaurpeko» nagusi da, ta inñori ez dio ezer eman biar. Uste def ulertu edo entendituko dezutela zer esan nai deten eta errez egin leiken gauza dala ere bai.

Borondate pixka bat besterik ez da biar baserritar guziak bizi diraden baserri eta lurren jabe izateko.

Eta au egiten ez ba'dute esan zenekezatute bascritarrak agintari daudenei, or Diputazioko

jaun oyei, ez dutela ezer egin nai zuben onerako, guk beintzat ori esango diegu. <sup>(1)</sup>

### III

## Nola zuzendu leizken sendi edo familifan gerta oi diran burrukak

Ondo dakizute sendi geyenetan burruka sortu oi duna dirua izaten dala.

Ara nola zuzendu leizken burruka abek.

Pelloc, lenago esan degun «Intxaurpeko» maiztarrak, lau seme dauzka. Zarrena egiten du etxerako eta beste irurei izentatzen die bakoitzari 3000 pesetako dotia.

Seme zarrena eskondu da «Intxaurpera» eta beste bi ondorengiak ere eskondu nai dute, Nola iruna milla peseta izcntatuak dauzkaten, eman egin biar zaye. Baña «Intxaurpen» ez daude 6000 pesetak emateko moduan. ¿Zer egin orduan? Diru-emanle bati eskatu «Intxaurpe» ordez jarrita? Ezin leike: zergatik Diputazioak jarri zion Pellori kondizioa «Intxaurpe» eta bere lurrak beretzat izango zirala, baña ezin zitezkelala saldu eta ezin ere inñori kendu dirua edo beste edozer gauza, beuren baliyua ordez ipiñita. Zer egin ba?

Nola billatu 6000 pesetak beste bi semiei dotatzeko? Gauza errexa: Diputazioak iriki deyola Pellori «Intxaurpe» ordez artuta 10000

pesetan kontua. Eta ateratzen duben diruari eman erazi euneko 5 reditua.

Orduan Pellok aterako ditu 6000 pesetak bere bi semiei emateko eta urtian emango dio Diputazioari 6000 peseta oyen reditua: 300 peseta. Baña nola baserriyan gelditzen dan semiarentzat izango dan «Intxaurpe», onek, bere emaztiakin, egingo ditu alegiñak lenbaitlen ordaintzeko 6000 pesetako sor ori. Beste laugarren semiakin egin lezake ber-bera eta ara nola iñoren mende egon gabe beti izan leiken «Intxaurpe» baserriya Pello edo bere ondorengua. «intxaurpe» izango da bertan lan egiten dubenarena, ez gaur bezela, ezer egiten ez dubenarena.

#### IV

### Baserrien jabe diranei

Gaur. ondo dakit, oso gaizki dagola idurituko zaizute baserritarrei esaten dietena. Jakiña: baserritarrak oin-pian eukitzen oituak zaudete ta ezin-ba ziñiztu zubek bezin Ama'ren semiak dirala.

Ez nai jakin guziok berdiñak gerala, nai zuek goiko mallan egon eta bestiak azkenenguan. Ondo dago. Laja deitzagun gauzak jarrai dezatela orain arte dijuazten bezela. Uste dezute berdín jarraituko dutela beti? Ori uste ba' dezute okerrian zaudete.

Begira an urrutira: ¿ze ageri da?

—¡O!—esango dezute—ez daukagu orren

bildurrik, oso urruti dago, gañera emengo baserritarra ondo bizi da eta su arek ezin lezake Euzkadin indarririk artu. Baña nik esango dizutet: bai, jaunak, su arek, boltxebiki suak, indarra artu leike Euzkadin beste edozein lekutan bezela.

Mendiyan garua dago eta nork su eman garo orri ez da faltako, gaur ez ba'da, bigar.

Orregatik egin biarda garua ondo bildu iñork su eman ez deyon; eta orain da garaya bakoi-tzak bere garuakin meta egiteko.

Gaur oraindik egin leike.

Bigar berandu izango da.

Lenengo arrapatzen dubenak garua beretzat egingo du meta. Orduan alperrik izango dira negarrak.

¡Egin gaur gauzak denborak agintzen duten bezela, bigar damu izan ez dezazuten!

Eta oroitu beti.....

Nausiyak morroyari  
Ez diola jana ematen,  
Baizik bere lanarengatik  
—Ez geyegi—ordaintzen.







## BUKAERA

### V

¡Agur. Euzkadiko baserritarrak!  
Inñoren mende bizi zeratenak,  
Gaurtik aurrera ¡apurtu betiko!  
Lotzen dizkizuten kate denak.

Eta, or, urtian bi edo iru aldiz juaten zaizkizuten jaun oyei sonbrerua kenduz ondo itz egi-tera, ez kasorik egin.

Oyek dijuaz botuan billa edo komeni zayoten gauzan eske. Zubek egin biar dezutena da guziok alkar artu eta erri guzietan jarri «BASERRITAR-ALKARTASUNA».

Eta orretan lagunduko dizutegu poz-pozik abertzaliak. Etorri zaitetze baserritarrak guregana., edozein Batzokitara eta an guzioi besuak zabal-zabal dauzkagula artuko dizutegu.


Baño guziok bat baziñateke bezela egin gau-

zak, gizonak bezela, ez gaur bat eta bigar bezetia, ez, ori ez, bein esandako itza euki, bestela galduak zerate, baña erri danetan guziok alkartuta egon eskero... ¡zein obeto biziko zihaten! (2) Eta au egiya dala ikusita ¿zegatik ez guziok bat egin? Bai, baserritarrak, alkartu zaitetze guziok eta eskatu Diputazioari zuben buruen jabe izateko, meresi dezuten azkasatuna eukitzeko, bere laguntasuna. Eta orduan ukusiko degu egi edo gezurrezkua dan zubentzat erakusten duben on-egin nai ori.

¡Baserritarrak!

«Ire bekokiko izardiakin  
Jango dek, gizon, ogiya»  
Jainkuak esan zion gizonari.  
¡Ta Bera da gure nausiya!

**¡¡Gora lan egiñaz bizi dana!!**



(1) Jarri deitzagun 6000 baserri dirala errentan daudenak eta Diputazioak artzen ditunak bere gain. Baserri bakoitzan baliyua ipiñi deigun 15000 peseta gutxi gora bera. (Ba-dakigu geigo baliyo dutenak izango dirala batez ere erri aundien ingurutakuak. Baña gure lanerako orrek ez du gora-beraik eiten, 15'en lekuan 20

edo 30000 ipiñi leike eta gauza berdiña da.) Ba, Diputazioak eman biarko dio baserri oyen jabe bakoitzari urtian 600 peseta, eta guzia izango da 3600000 peseta. Baserri bakoitzeko maizterrak emango dió Diputazioari 675 peseta urtian eta guzia izango da 3950000 peseta. Diputazioan alde gelditzen dira-ba lenengo urtian 350000 peseta. Diru onekin, 300000 pesetakin (50000 laja deitzagun gastutarako) jarri nekazari eskola onak, erakutzi baserritarrari sagardua eiten, sagastiak biar bezela zaintzen, zuaizta maitatzen, txal ederrak asitzen, erakutzi [erakutzi bildur gabe ludian diran aurreramen guziak! Erakutzi eta lagundu baserritarrari, zegatik nai dana ezango da baña nekazaritza da ludiko aberastasun aundiena.

(Españian artzen ziran guda baño len 4 milloi tonelada arrikatz eta baliyo zuten 60 milloi peseta. Burni arteziak zeukaten ekarte edo produziyuak, 400000 tonelada, baliyo zitun 200 milloi peseta. Eta eungai'ena zan 500 milloi peseta. Ba, iru artezi edo industria abek alkartuta ez dute lurgintzak eman zuben laurdenik ematen. Onek eman zitun 1914'garren urtian iya 5000 milloi peseta. Alemanian berriz, guda baño len, urtero egitezan satsak baliyo zitun 1800 milloi marko. Urte guzian ateratzen zuten arriketzak etzun orrenbeste baliyo.)

Orain jarri deigun bigarren urtetik beserri-tako maizterrak amortizatzen dutela beuren baserriyan baliyotik  $\frac{1}{4}$ . Izango dira urtian 3600000 peseta. Ba diru orrekin erosi leizke

urtego urtian 240 baserri eta modu ontara, ur-tian' baserritar guziak amortizatzen dutenakin, baserriyak erosiz, 30 urte baño len Gipozkoako baserrien jabe baserritarrak. ¡Ze gauza aundia litzaken ori Gipuzkoa rentzat! Orduan bai izango litzakela ludi guziko ikusgarria! Gure eskuan dago ba izan edo ez Maite degula esatia baño egiñekin erakustia obe da.

(2) Guretzat, karrikan bizi geranontzat, ere, ondo etorriko litzake, zegatik baserritarrak beria dubela baserriya orain baño txekor bat geigo urtero errez aziko leuke. Ba, 6000 baserri, 6000 txekor geigo urtian eta giza ontan, esne-arrautz eta beste gauzu guziak. Emengo baserritarra zurra dala eta garesti saltzen ditula gaurzak ¿Baño guk ezer ematen aldiegu merke? Oñetako, jantzi eta beste biar ditun gauzak, ¿merke daude edo? Gañera, alperrik dira berriketak, guziok bizi biar degu lurrari kentzen zaionetik, baserritarrak artzen dubenetik eta, argi ta garbi dago onek zenbat eta gauza geigo artu, guk ere geigo izango degula. Ortik dator merketasuna, ortik bakarrik, gauza ugari artzetik. ¡Erakutzi eta lagundu deyoğun-ba neka zariaril.

